

Artikulu honetan xehe-tzen dira zeintzuk diren Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusiak gauzatzen dituen eta lehentasuna duten neurriak. Halaber, Hizkuntz Normalizaziorako Sare Teknikoaren lan ildoak aipatzen dira, beste artikulu batean garatuko direnak, hain zuzen.

Azkenik, Hizkuntz Normalizaziorako Partzergoaren eta sektoreetako hizkuntz zerbitzuek lehentasunez aplikatu behar dituzten programak ere deskribatzen dira.

Plan orokor honek hiru arlo-mota desberdinetan ezartzen ditu helburuak: 23 eskuhartze-arlotan, 4 lurralde-arlotan eta 5 laguntza-arlotan. Berariazko helburuak, guztira, 104 dira, eta neurriak, beriz, 190.

HIZKUNTZ NORMALIZAZIO SAREEN LAN ILDOAK 1995ERAKO

Joan Solé i Camardons

Kataluniako Hizkuntz Politikarako Idazkaritza

HIZKUNTZ NORMALIZAZIO PLAN OROKORRA, 1995

Generalitatearen Gobernuak duela gutxi onartu duen Hizkuntz Normalizazio Plan Orokorrak (HNPO) lehenengo aldiz ezartzen du publikoki eta formalki bost eskuhartze-sektoreen hizkuntz normalizaziorako helburuak eta neurriak: Erabilera ofiziala eta hizkuntz eskubi-deak; Hezkuntza, ikerketa eta gazteria; Kultur industriak eta komunikabideak; Eremu sozioekonomikoa; eta Osasun eta Gizarte Institutuzioak. Bestalde, lurralde eta laguntzazko bi sektore ere badira: Kultur eta lurralde harremanak alde batetik, eta Estandarraren hedapena eta ikerketa soziolinguistikoa bestetik.

A) HIZKUNTZ POLITIKARAKO ZUZENDARITZA NAGUSIAREN LEHENTASUNEZKO NEURRIAK

Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusiak (HPZN) 16 eskuhartze neurri aurrikusi ditu, lurralde edo kanpo proiektiozko 4 neurri eta laguntzazko 10. Lehentasuna duten laguntzazko neurrien artean hauek nabarmen daitezke: Hizkuntz Normalizazio Plan Orokorraren koordi-

nazioa, hizkuntz zerbitzuen mapa, estandarizazio prozesuaren plan zuzentzailea eta ikerketa soziolinguistikoaren plana.

Lurraldearen ikuspuntuari dagokionez, aurtengo helburuak bi punturen inguruan zentratzen dira: Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren zerbitzu zentralen eskuhartzeen lurralde-aplikazioaren sendoketa, eta Kultur lurralde zerbitzuen partehartze aktiboa.

B) HIZKUNTZ NORMALIZAZIORAKO SARE TEKNIKOAREN LAN ILDOAK

Hizkuntz Normalizaziorako Sare Teknikoaren (HNST) 1995. urterako programak 1994-1996 Programa-markoan aurrikusitako neurriak garatzen ditu. Sail bakoitzak ezarri ditu zeintzuk diren lehentasunezko iharduerak, Hizkuntz Normalizaziorako Plan Orokorrean finkatutako exekuzio-erantzukizunen arabera.

Esan beharra dago aurrikusitako Hizkuntz Normalizaziorako Sare Teknikoaren lan ildo orokorretako bakoitzak berari dagokion sektorean duela lanerako leku, sail bakoitzaren aginpide-eremuaren arabera.

Lan ildo orokorrei dagokienez, lehen alderdi amankomunak lotura estua du sailen barneko hizkuntz normalizazioarekin. Hizkuntz klausula estandar batzuk egitea aurrikusi da, hizkuntz normalizazio gaietan berariazko ez diren hornikuntza eta zerbitzu kontratueta eta subentzio eta laguntzetan sartzeko. Aipaturiko klausulak jadanik sartu dituzten sailen kasuan, prozedura kontraktualetan aplikazioaren jarraipena egitea aurrikusten da.

Bestalde, koordinazio sektorialak garatzea aurrikusi da, lan taldeak sortzearen bidez, beti ere Hizkuntz Normalizazio Plan Orokorrearen eskuhartze-sektoreen arabera. Lan talde hauek bermatuko dute sailen iharduketei buruzko informazioak eremu berebean bideratzea, eta lan sistema koordinatu bat ezartzea ahalbidetuko dute, inbertituriko baliabideak errentabilizatzeko.

Hirugarren alderdi amankomunak iharduketen lurralde-aplikazioa azpimarratzea aurrikusten du, lana deszentralizatzen laguntzeko. Horrela ahalbidetuko litzateke, ahal den neurrian, Generalitateko lurralde-sare teknikoko kideen partaidetza sailen urteko programen elaborazioan, exekuzioan eta jarraipenean. Partehartze horrek, bide batez, beste zerbaitetarako ere balio behar du: sare teknikoko kideek hizkuntz normalizazioan dituzten eginkizunen errekonozimendua bul-

tzatzeko.

D) HIZKUNTZ NORMALIZAZIORAKO PARTZUERGOAREN LANILDOAK

Hizkuntz Normalizaziorako Partzuergoak (HNP) 1995erako duen programak 1994an zehar sartu diren orientabideak jaso eta egokitzen ditu. Zenbait iharduketen bidez dinamizazioa bultzatuko da, hizkuntz normalizazioaren iharduketen motore eta ardatz gisa. Horrela, gero eta harreman estuago izatea nahi da hiritarren zerbitzu zuzenen eta hizkuntz normalizazio programa sektorialen artean.

1995ean oso garrantzitsua izango da Partzuergoak egin beharreko lan bat: Hizkuntz Normalizazio Plan Orokorrek markatuko duen lan testuingururako prestatu eta egokitzea.

Hizkuntz Normalizaziorako Partzuergoaren urteko Planak ezartzen eta finkatzen du, oro har, lanen orientazio teknikoa, hau da, gero normalizazio zentroek eta barnean dituzten zerbitzu eta bulegoek burutuko duten lanen orientazio teknikoa. Gero, zentroetako kontseiluei dagokie marko orokor hori lurralde bakoitzeko behar eta lehentasunetara egokitzea.

Aplikazioan lehentasuna duten programak hauek dira: Erabilera ofiziala (toki-administrazioa eta eremu juridikoa) eta sektore sozioekonomikoa (errotulatzailak eta publizitate-agentziak).

Orientazio eta toki-ekimen programei dagokienez, kantitatea mugatzea proposatzen da, zentro-kontseilu bakoitzaren lehentasunen arabera. Oro har, zera esan daiteke: jadanik hasita dauden programak amaitzea komeni dela, eta programa berriren bat hasita egonez gero orientazio metodologiko amankomunak jarraitu behar direla.

E) HIZKUNTZ ZERBITZU SEKTORIALAK

Enpresa, sindikatu eta elkargo profesionalen erakundeen hizkuntz zerbitzuek (HZ) bi eginkizun nagusi dituzte: alde batetik erakundearen barne eta kanpoko komunikazioen hizkuntz normalizazioari lehentasuna ematea, eta bestetik hainbat eremutan hizkuntz normalizazioa lortzeko laguntza eman edota sustatzea, kasuen arabera. Eremuak hauek dira: gremioak, bulego profesionalak, enpresa elkartuak eta —sindikatuaren kasuan— inplantaziorik handiena duten enpresak.

HIZKUNTZ NORMALIZAZIO SAREEN PROGRAMA ETA NEURRI NAGUSIAK

1. ERABILERA OFIZIALA ETA HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

Generalitatearen Administrazioa:

- Hizkuntz Normalizaziorako Sare Teknikoaren egitura osatzea Generalitateko sailetan, beren egitura eta aginpide —eremua direla— eta halakoak behar dituztenean unitate eta batzordeak sortuz (HPZN).

Toki-administrazioa:

- Hizkuntz normalizazio iharduketak intentsifikatu, osatu eta sendotu toki-administrazioetan (HNP).

-Komunikazio-bideen errotulazioaren normalizazioa bultzatzea (Lurralde Politika eta Herrilan Saila).

Estatuaren Administrazio zentrala eta periferikoa:

-Estatuko botereekin negoziazioan oinarri teknikoak ezartzea, benetako ofizialtasun bikoitza lortzeko neurri eraginkorrak har ditzaten, eta piskanaka-piskanaka katalana lurraldeko berezko hizkuntza gisa erabiltzearen (HPZN).

-Eremu honetan indarrean dauden arau modifikatzaile edo eguneratzaileen proiektu eta proposamenen aurkezpena bultzatzea (HPZN).

Justizi-administrazioa:

-Hizkuntz normalizazio programa sendotzea epaitegietan (Justizi Saila).

-Bulego judizialean sortzen den dokumentazioaren arrazionalizazioarekin jarraitu, modernizazio irizpideetara egokitzearen eta katalanaren erabilera zabaltzearen, bai paperean eta bai euskarri informatikoan ere (Justizi Saila).

Zuzenbide inguruko elkargo profesionalak:

-Elkargoetan hizkuntz normalizazio planak ezartzea eta hizkuntz zerbitzuak sortzea, baliabide egokiak izango dituztenak eta elkargoetan hizkuntzarekiko interesa sortuko dutenak, elkargoekin hitzarmenak sinatuz (HPZN).

-Katalana eta hizkuntza juridikoa landuko dituzten ikastaroak antolatzeko zuzenbide-profesionalentzat eta eremu juridikoaren barnean elkargo profesionaletan lan egiten dutenentzat (HPZN, HNP, HZ).

-Beren lanean zuzenbide-profesionalek behar duten hizkuntz laguntza erraztea. Programa honetan 2.000 profesionalek osatutako talde

batek hartuko du parte, eta laguntzazko iharduketak lurraldeei egokituak izango dira (HNP, HZ).

-Kataluniako Kudeatzaile Administrazioen Elkargo Ofizialaren hizkuntz zerbitzua sendotzea.

-Kataluniako Abokatuen Elkargoko Kontseiluaren hizkuntz zerbitzua sendotzea.

-Kataluniako Prokuradoreen Kontseiluarekin hitzarmen bat sinatzea.

-Gizarte Graduatuaren Elkargoarekin hitzarmen bat sinatzea.

-Normalizazio prozesua bultzatzea notarioen eremuan.

Hiritarren hizkuntz eskubideak:

-Kontsumitzailearen estatutua behar bezala garatzea, bertan aipatzen diren hizkuntz eskubideak berme guztiekin aplikatu ahal daitezkeen (HPZN, Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Saila).

2. HEZKUNTZA, IKERKETA ETA GAZTERIA

Eskolako hezkuntza:

-Katalanaren erabilera sendotzea hezkuntz sistemaren berezko hizkuntza gisa (Hezkuntza Saila).

Helduen hezkuntza:

-Programa eta baliabide didaktikoak lantzea, multimediaren osagaiak sartuz, katalanaren irakaskuntza hobetzeko helduen artean (HPZN).

-Biztanlego helduaren hizkuntz ezagumenduak ebaluatzea, Katalanaren Batzorde Iraunkorraren frogen bidez (HPZN).

Goi mailako hezkuntza:

-Unibertsitateko irakasle lanpostua eskuratzeko egiten diren frogetan katalanaren ezaguera baloratzea (Unibertsitate eta Ikerketa Batzordea).

Gazteria:

-Gazteen artean katalanaren erabilera bultzatuko duten neurriak bultzatzea, gazteriaren sailarteko Planaren esparruan mugituz (Gazteriaren Idazkaritza Orokorra).

3. KOMUNIKABIDEAK ETA KULTUR INDUSTRIAK

Kultur industriak:

-Zinema eta bideoa. Ikusentzunezko enpresei dirulaguntzak ematea katalanez bikoizten edo azpititulatzen diren filmeen kopurua handitzearen, telebista bidezko edizioa eta igorpena bermatzearen eta mer-

katuratzea erraztearren. Horren osagarri gisa, bideo banatzaileen artean akordioak bultzatzea, bilduma bereziak eskaini ditzaten, batez ere haurrentzako (HPZN).

Komunikabideak:

-Irrati eta telebista. Kataluniako eremuko emisorekin akordioak sinatzea hizkuntz normalizazio ekintzak burutzeko, adibidez, berariazko ikastaroak, errotulazioa, inprimakiak eta publizitatea. Arazo soziolinguistikoak dituzten herri edo hiritan dauden irratiekin akordioak sinatzea, zenbait irrati-espazioen bidez katalanaren ezaguera eta erabilera bultzatzearren (HPZN, Lehendakaritza Saila).

Publizitatea:

-Publizitate enpresetako arduradunei eta langileei prestakuntza eta informazio iharduerak eskaintzea, sektore horretan katalanaren erabilera soziala eta hizkuntz zuzentasuna bultzatzearren (HPZN, Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Saila).

-Katalanaren presentzia areagotzea publizitate komertzialean (Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Saila).

-Errotulatzailerak. Errotulazio eremuan jadanik hasita dauden sustapen iharduketak osatzea, errotuluaren fabrikatzaileengan zuzeneko eragina izatearren (HNP).

-Publizitate agentziak. Hizkuntz normalizazio programak edota ekimenak sustatzea, sektore honetan katalanaren presentzia publikoa areagotzearren (HNP).

Informatika:

-Normalizazioaren sustapen eta laguntza politika ezartzea hainbat eremutan: makineria eta programak, lizentzien eskurapena, laguntzak, subentzioak, hitzarmenak, sariak, eta abar (HPZN, Industria eta Energia Saila, Lehendakaritza Saila).

-Hedapen handia duten produktu informatikoen mailan eskaintza nahikoa eta anitza sendotzea (Industria eta Energia Saila).

4. EREMU SOZIOEKONOMIKOA

Enpresa, sindikatu eta ekonomia sozialeko erakundeak:

-Hizkuntz normalizazio planak burutzea, edota hizkuntz zerbitzuak sortu edo sendotzea, kontsumitzaileen elkarreentzako, enpresa eta sindikatu erakundeentzako, eremu horietan katalanaren ezaguera eta erabilera bultzatzearren (HPZN, HZ).

-OCUC eta beste kontsumitzaile elkarteetan hizkuntz normalizazioa bultzatzea, Kontsumoaren Institutu Katalanarekin batera aurrikusitako

iharduketak burutuz.

-Eremu sozioekonomikoan diharduten elkargo profesionalekin elkarlanerako akordioak bultzatzea, elkargoen funtzionamenduan ezagumenduak, berariazko hiztegia eta erabilera-irizpideak ezartzearren, baita lanbidea burutzeko erabiltzen diren beste lan tresnetan ere (HPZN, HZ).

Enpresa pribatuak:

-Enpresetan hizkuntz normalizaziorako batzordeak sortzea, beraien bidez burutu ahal izateko hizkuntz normalizazio planak (HPZN).

-Lan harremanetan katalanaren erabilera areagotzea lan-hizkuntza gisa, eta lanbide heziketaren eremuan hizkuntz normalizazio prozesua bultzatzea (Lan Saila).

-Merkatalgaien garraiorako ibilgailuen hizkuntz normalizazioa (Lurralde Politika eta Herrilan Saila).

-Zenbait entitate handiren hizkuntz zerbitzuak sendotzea (SEFES, PIMEC, Merkataritzaren Konfederazio Katalana, Bartzelonako Ganbara eta «Barcelona Activa») eta beren enpresa elkartuetan ere hizkuntz normalizazio planak buru ditzaten.

-Hizkuntz normalizazio sariak antolatzea enpresen munduan (SEFESen HZ, PIMECen HZ, HPZN).

-Hizkuntz normalizazio planei laguntza ematea enpresetan: berreskuratze kanpaina (UGTren HZ), «Trellengua» kanpaina (CCOOren HZ), hizkuntz normalizazio kanpaina aurrezki kutxetan (CTCren HZ).

-Hizkuntz normalizazio programak egitea, aparejadore, ekonomista eta psikologoaren elkargoekin batera, beren bulego profesionaletan aplikatu ahal izateko.

Enpresa publikoak:

-Hizkuntz zerbitzuen eta hizkuntz normalizazio batzordeen sorkuntza bultzatzea sindikatuen partehartze aktiboarekin garraio eta komunikazio enpresa publikoetan, onetsitako programen jarraipena egin dezaten, batez ere ahozko eta idatzizko harremanetan (megafonia, errotilazioa, komunikazioak...) katalana erabiltzeari dagokionez, lan hitzarmenak katalanera itzultzea eta hedatzea ahaztu gabe (HPZN).

-Iberia konpainiarekin hizkuntz normalizazio akordioak sinatzea (USOCen HZ).

-Hizkuntz normalizazio kanpaina garraio eta komunikazioetan (CGTren HZ).

-Postan ere hizkuntz normalizazio iharduerak mantentzea (CCOOen HZ).

5. OSASUN ETA GIZARTE INSTITUZIOAK

Kirol Elkartek:

-Hizkuntz normalizazio prozesua bultzatzea kirol munduan, eta «*Unió de Federacions Esportives Catalanes*» edo Kirol Federazio Katalanen Batasunaren hizkuntz zerbitzuaren hizkuntz normalizazio lana sendotzea.

-Katalanaren erabilera areagotzea kirol munduan, bai kirol ospakizunetan eta bai komunikabideetan ere (Lehendakaritza Saila).

Elkarte eta kolektibo sozialak:

-Auzo elkarteek eta bestelako elkarte zibiko eta abarrek argitaratzen dituzten materialen edizioetan laguntza ematea (Ongizate Saila).

Osasun eta laguntzen eremua:

-Hizkuntz normalizazioa bultzatzea aseguru librezko entitateetan, sektore farmazeutikoan eta osasun zientzien alorrean (Osasun eta Gizarte Segurantzza Saila).

-Osasunaren Zerbitzu Katalanaren eremu korporatibo osoan hizkuntz normalizazioa bultzatzea.

-Osasunaren Institutu Katalanaren oinarritzko harrera-zentroetan eta ospitaletan hizkuntz normalizazioa sendotzea.

6. KULTUR ETA LURRALDE HARREMANAK

Lurralde koordinazioa:

-Hizkuntz normalizaziorako lurralde-erakunde guztien artean —Generalitatearen menpe daudenak eta ez daudenak— aldizkako koordinazio-bileren egutegi bat egitea (HPZN, HNST, HNP, HZ).

-Hizkuntz normalizaziorako Partzuergoak duen maparen osagarri den «sektorekako hizkuntz zerbitzuen mapa» eguneratzea (HPZN, HZ).

Estatu espainoleko gainontze erakundeekiko harremanak:

-Kataluniako errealitate soziolinguistikoari buruzko informazioaren hedakuntza plana, komunikabideei zuzendua (HPZN).

Nazioarteko harremanak:

-Katalanaren nazioarteko Agiria bultzatu eta zabaltzea (HPZN).

7. ESTANDARRAREN HEDAPENA ETA IKERKETA SOZIOLINGUISTIKOA

Estandarraren hedapena:

-Ikasketa Katalanen Institutuarekin eta hizkuntz lurralde katalan osoko instituzioekin adostutako estandarizazio proposamenen elaborazio eta jarraipen sistema bakar bat artikulatzea, iharduketak elkarrekin planifikatzea ahalbidetuko duena, eta inplikaturiko erakunde bakoitzari dagozkion funtzioak zehaztuko dituena (HPZN).

Hizkuntz irizpideen elaborazio eta hedapena:

-Estandarizazio prozesuaren ardura duten erakundeek -bakoitzak bere eremuan, eta estandarren hedapen agente gisa funtzionatzen duen neurrian- hartzen dituzten erabakien transmisio arina eta eraginkorra ziurtatzeko mekanismoak finkatzea. Hor sartuko lirake, besteak beste, hizkuntz zerbitzuak sendotzea eta hizkuntzaren estandarizazio proposamenen hedapen edota bideratze sozialerako bide ofizialak potentziatzea (HPZN).

Hizkuntza espezializatuak eta terminologia:

-Hizkuntz normalizazio iharduketa sektorial guztietan hizkuntz material espezializatuen elaborazio eta hedapen ekintzak sartzea, baliabide informatikoak barne (HPZN).

Ikerketa soziolinguistikoa:

-Ikerketa soziolinguistikozko plan zuzentzaile bat diseinatzea hiru egileren artean: Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusia, Soziolinguistikako Talde Katalana, eta unibertsitate kataluniarrak. Lan horretan irakaskuntza eta ikerketa postuen hornikuntza egokiak bultzatu beharko lirake, erabilera eta estatusaren alderdiak ezagutzeaz gain, hizkuntzaren bestelako alderdien garapena ere ezagutu ahal izateko (HPZN).

-Zenbait helburu eta mekanismo sartzea, metodologikoki, edozein normalizazio ekintzak edota kanpainak sortarazten dituen ondorioen jarraipen eta ebaluazioa egin ahal izateko. Lan hori guztia hizkuntz normalizazio prozesuan ematen diren eskuhartze proiektuen zati integral gisa hartuko litzateke.

-Katalanaren erabilera-indize bat ezartzea (INUSCAT), lurralde osorako balioko duena, urtero eguneratu daitekeena, hizkuntzaren egoeraren bilakaera neurtu ahal izateko (HPZN).

-Gai soziolinguistikoei eta hizkuntz planifikazioari buruzko dokumentazioa eskura izateko aukerak bermatzea, munduko beste lekuetan izandako antzeko esperientzietatik ikasi ahal izateko, eta hizkuntz normalizazio dinamika beraren egoera ebolutiboa ebaluatu ahal izateko (HPZN).

8. LAGUNTZA TEKNIKO ETA ADMINISTRATIBOA

Planifikazio prozesuaren koordinazioa:

-Hizkuntz Normalizazio Plan Orokorren planifikazio prozesua ko-ordinatzea (HPZN).

-Hizkuntza Katalanaren Kontseilu Sozialaren iharduerak bultzatzea, Hizkuntz Normalizazio Plan Orokorren jarraipena barne (HPZN).

Informazio, marketing eta argitalpenak:

-Hizkuntz normalizazioari aplikaturiko marketinga antolatzea, lan-metodo gisa hartuz, eta hizkuntz zerbitzuetan hedatzea; Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren iharduketa, produktu eta zer-bitzuen hedapena koordinatzea; eta hizkuntz normalizazio sareen ar-teko informazioaren zirkulazioa antolatzea (HPZN).

